

Kaixo, lankide:

Azken hilabeteetan milaka irakaslek, ehunka ikastetxek eta hezkuntza komunitateko eragile askok argi adierazi dugu **IRALEko Euskarazko murgiltze ikastaroen aldeko jarrera**. STEILAS, LAB eta ELA sindikatuek bultzatuta **6.500 sinadura** baino gehiago bildu eta Hezkuntza Sailari aurkeztu dizkiogu, mobilizazioak egin dira ikastetxeetan, eta behin eta berriz eskatu zaio Hezkuntza Sailari erabakia bertan behera uztea eta gaia negoziazio mahaira eramatea.

Hezkuntza Sailak, ordea, ez die eskaera horiei erantzun egokirik eman. Horren aurrean, sindikatuok, irakasleei dei egiten dizuegu datorren ikasturterako eskaintzan agertuko ez diren **IRALEko R ikastaroetan izena eman dezazuen ekainean zehar**. Helburua ez da administrazio-prozedura huts bat egitea; helburua da argi erakustea ikastaro horiek beharrezkoak direla, langileen artean benetako eskaria dutela eta Hezkuntza Sailaren erabakiak ez diola hezkuntza komunitatearen nahiari erantzuten.

Izen-emate sinboliko eta aldarrikatzaile horren bidez, irakasleen kezka eta haserrea ikusgarri egin nahi ditugu, baita euskararen ezagutza, erabilera eta transmisioa indartzeko tresna eraginkorrak mantentzearen beharra ere.

Erantsita doakizu izen ematea egiteko txantiloia. Bete eta tramitagunetik aurkeztu besterik ez duzu egin behar! Eta behin aurkeztuta ondorengo helbideetara helarazi:

steilas@steilas.eus
eaeirakasleak@lab.eus
irakaskuntza@ela.eus

Egin ezazu zure izen emate sinbolikoa!!